

ARRAZAKERIAREN ETA ANTIGITANISMOAREN AURKAKO MANIFESTAZIORAKO DEIA

Martxoaren 20an, asteazkenean, Bizkaiko pertsona migratu, arrazializatu eta ijitoen hainbat erakunde elkartuko gara Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Egunean manifestatzeko.

Deialdi honen leloa “Arrazismoaren eta heriotza-politiken aurka” izango da. Manifestuan diogunez, Estatuek kapitala bizitzen gainetik jartzen dute.

"Sistema arrazista, koloniala, kapitalista eta patriarkala gure bizitzetan gorrotoa, ahultasuna eta desberdintasun soziala betikotzen dituzten ekintza, lege eta politiketan oinarritzen da. Hori dela eta, aurrera pauso bat eman behar dugu, gaur eta egunero arrazakeriaren aurkako jarrera hartuz, eta bere adierazpen guztiak zalantzan jarritz ", irakur daiteke manifestuaren pasarte batean.

Aurten, espero den bezala, Palestinako testuinguruak markatzen du topaketa, eta premiazko ñabardura bat hartzen du pertsona arrazializatuak, musulmanen, migratuen eta/edo ijitoen bizitzaren gaineko bidegabekeriak babesten eta desberdintasunak eraikitzen dituzten politika publikoak salatzeak.

Martxoaren 20an parte hartzeko deialdia hainbat erakunde feminista, ijito, afrikar, afrikarondorengoak, musulman eta mistok egiten dute, besteak beste: Bizkaiko SOS Arrazakeria, ijitoen kolektiboak; Kale Dor Kayiko, Agharas, Mujeres con Voz, Sortu, Azet, Candela Radio, Bilgune Feminista, Atxuri Harrera, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Getxoko Etorkinen Plataforma, Batucada Batikumba, Novisi Elkartea, Auzoak Abian, Baye Fall, Bizkaiko Manteroen Sindikatua; Mbolo, Lumaltik, ZEHAR, BDZ kolektiboa.

“Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan beharrezkoak dira bizitzak erdigunean jartzeko politikak, pertsona migratu, arrazializatu eta ijitoen bizitzak inportanteak direla onartzera bideratutakoak”, dio idazkiak.

Ekintza 18:30etan hasiko da, San Frantzisko auzoko Mariaren Bihotza plazan, eta Bilboko Udalera heldu arte jarraituko du.